

MTRA. EMILIA ZUZA BRUN HILHI

2023/2024

IKASTURTEKO ZIRKULARRA



Eskolako datuak gogoratuko dizkizuet.
LEHEN HEZKUNTZA HAUR HEZKUNTZA
Pajares 36 Axular 1B
Tfnoa: 944287907 Tfnoa.: 944287908

E-MAILA: 014926aa@hezkuntza.net
emiliazuza@emiliazuza.com
WEB ORRIA: www.emiliazuza.com

GURASO ELKARTEA
Tfnoa: 944287907/634 45 35 89
E-MAILa: amypa.zuza@gmail.com
ampa@emiliazuza.com



AURKIBIDEA

1- FAMILIEI GUTUNA.

2- ORDUTEGI GARRANTZITSUAK.

3- IKASTURTEKO INFORMAZIOA IKASTETXEKO IKASLEEN GURASOENTZAT.

- ESKOLAKO ORDUTEGIA
- BISITORDUAK
- IKASTETXEAREN HOBEKUNTZARAKO JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK
- GARRAIOA

4- IKASTETXEKO OINARRIZKO ARAUTEGIA.

- ARAU OROKORRAK
- ELKARBIZITZA ETA DISZIPLINA
- OSASUNA ETA ONGIZATEA
- PATIOAK
- JANTOKIA
 - ✓ FAMILIA GUZTIEI
 - ✓ ARAUAK
 - ✓ JANTOKIKO LANGILERIA
 - ✓ JANTOKI ORDAINKETA
 - ✓ DESKONTUAK
 - ✓ JANTOKIKO BAJAK

5- TESTULIBURUEN ETA CURRICULUM-MATERIALEN KUDEAKETA SOLIDARIOA EGITEKO PROGRAMA (LEHEN HEZKUNTZA)



Guraso horiek:

Ikasturte berri baten hasiera dela eta, honako zirkular honen bidez, harremanetan jartzen gara 2023-2024 ikasturte honetan ongietorria emateko nahian. Jakin behar duzue gogor egingo dugula lan guri dagokigunaren aldetik ikasleriaren beharrak betetzeko asmoz.

Esku artean daukazuen dokumentuaz, zuen gogokoa eta baliogarria izango delakoan, zentroarekin zerikusia duten gaien berri eman nahi dizuegu.

Bide batez, eta beti bezala, gogorarazten dizuegu zuen laguntza ezinbestekoa dela hobekuntza eta arrakasta lortzeko. Partaidetza hau bideratzeko gure web orria, duzue (www.emiliazuza.com), kontuan izango diren zuen iritziak eta iradokizunak uzteko oso leku aproposa.

Besterik gabe, eskola (zuen eskola) honetako atea irekita dituzuela eta irakasleria eta zuzendaritza taldearen izenean, zuen iradokizunak jaso eta ahal dugun neurrian laguntzeko prest gaituzuela jakinarazi nahi dizuegu.

Har ezazue gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA TALDEA



IKASTURTEKO INFORMAZIOA IKASTETXEKO IKASLEEN GURASOENTZAT

ESKOLAKO ORDUTEGIA (Egutegiaren arabera)

Irailaren 28tik maiatzaren 31a arte.

Astelehenetik ostiralera

Goizez: 9:00etatik 13:00 arte.(Bi urteko ikasleak: 9:10etatik edo 10:00etatik 12:50 arte)

Arratsaldez: 15:00etatik 16:30 arte (Bi urteko ikasleak 16:20an aterako dira).

*Gogorazten dizuegu asteazkenetan ez dagoela klaserik arratsaldez.

Irailaren 27 arte eta ekainaren 3etik 21era arte.

Astelehenetik ostiralera

9:00etatik 14:45 arte (Bi urtekoak 9:10etik edo 10:00etatik 14:35 arte)

Gogoratu ere, sartzeko ordua izan baino 5 minutu lehenagora arte ezin dela eskolan sartu.

BISITORDUAK

Irakasleria:

Astelehenetan 13:00etatik 13:30 arte .

Arreta egokiena eman dezagun, batzarra eskatzeko, alde zurratik nota bat bidali zuen seme-alabaren bitartez.

Irakasleen klase-ordutegia 9etatik 13:00 arte eta 15:00etatik 16:30 artekoa da. Tarte horretan telefonoz ez deitzea eskatzen dizuegu. Ohar bat bidali iezaiozue irakasleari, zuekin kontaktuan jartzeko.

Idazkaritza:

Egunero 9:30etatik 11:00 arte eta 15:30etik 16:30 arte (astelehenetan izan ezik).

Haur Hezkuntzako koordinatzailea:

Asteartetik ostiralera 9:00etatik 10:00 arte.

Jantokiko arduraduna:

- Ordainketa eta kontuak : Egunero 9:15tik 10:00 arte.
- Gurasoen arreta: Egunero 12:15tik 13:00 etara

Hitzordua nahi izatekotan deitu telefono honetara : 944629088

Zuzendaritza Taldea:

Zuzendaritza taldearekin hitz egiteko hitzordua alde zurratik eskatzea beharrezkoa da 944287907 telefono zenbaki honetara deituz.

Zuzendaritzarekiko komunikazioa pertsonala izango da, edozein motatako gaiak tratatzeko erarik egokiena dela uste dugulako. Posta elektronikoak (e-mailak) ez dira onartuko zuzendaritzako taldearekin harremanetan jartzeko orduan.



Eskolako dokumentu akademikoak gurasoen eskura daude zuzendaritza bulegoan.

IKASTETXEAREN HOBEKUNTZARAKO JARRAITU BEHARREZKO PAUSOAK

Eskolako bizitzan, zuen iritziz, zerbait beste era batera kudeatu behar dela ikusi edo atsegina ez duzuenean, honako pauso hauek jarraitu behar dituzue:

1. Arazoa ikastetxeko irakasle bati dagokionean, berarengana zuzendu eta konponketa bilatu. Jantokiko edota autobuseko zaindariei balegokie, dagokion zerbitzuaren arduradunarengana jo zuzenean.
2. Konforme ez ba zarete gelditzen, zuzendariarengana jo.
3. Hau egin eta gero zuen eskariak erantzun egokirik jaso ez duela uste baduzue, Guraso Elkartearengana zuzendu zaitetzte. Honela, Eskola Batzordean dituzten ordezkarien bitartez zuen eskaria defenda dezaten.
4. Hau guztia egin eta gero zuen eskariak erantzun egokirik hartu gabe jarraitzen badu, Ikuskaritzara zuzendu.
5. Kexa eskolako funtzionamendu orokorrari dagokionean, zuzendaritzara zuzendu.
6. Iradozkizunpostontzi bat jarri dugu Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako sarrean, eta han iradokizunak, kezak, kexak eta abar sar ditzakezue ikasturte osoan.

Ikastetxeko zenbait arlo edo ekintza gogoko dituzuenean ere komenigarri ikusten dugu zuen iritzia ematea.

GARRAIOA

Eskola garraioa erabiltzen duten ikasleek 8:20tik aurrera erabiliko dute zerbitzua, ezarritako geltokiaren eta txanden arabera.

Itzulera klaseen amaierarekin batera egingo da, hau da, 16:30etan edo 14:45etan asteazkenetan eta goizeko jardunaldietan.

1.-Hurrek autobusa atera baino 5 minutu lehenago egon beharko dute geltokian.

2.-Arrisku eta istripuak ekidin ditzagun, ikasleek autobusa gelditu arte espaloian itxaron beharko dute eta zaintzaileek deitu edo baimena emandakoan bakarrik igoko dira.

AUTOBUSA 1.BUELTA

- Ambulatorio: 8:15 h
- Parque: 8:18h
- Aloha: 8:20 h
- San Juan: 8:25 h
- Kabiezes Rotonda : 8:35 h

AUTOBUSA 2. BUELTA

- Kabiezes Rotonda: 8:50 h



3.- Umeek Kabiezeseko geltokian ilarak egin behar dituzte autobusera ondo eta ordenez igo ahal izateko.

4.- Zaintzaileek erabiltzaileen segurtasunerako eta zerbitzuaren erabilera onerako arauak betearaziko dituzte:

- Umeak espaloian gelditu behar dira monitoreek esan arte.
- Ikasleek ilarak egin behar dituzte.
- Umeek autobusera igo eta autobusetik jaitsi ordenez egin behar dute eta bidaian zehar eserita egon, bai ikaskideak bai monitoreak errespetatuz.
- Umeek sarreretan zein irteeretan monitoreek esandakoari kasu egin behar diote (eskolatik ez atera, ilaratan egon,...)
- Eskolatik irteterakoan, autobusa galduz gero, ikasleek zuzendaritzatik pasa eta egoera jakinarazi beharko dute.

5.- Noizbait, egunen batean, ikasle batek autobusean itzuli behar ez badu, familiak autobus zaintzaileari jakinarazi beharko dio, eta 1go eta 2. mailako ikasleak badira, irakasleari ere jakinarazi beharko zaio.

6.- Ikasleak jasotzeko arduradunak geltokian egon beharko dira autobusa heldu baino lehen.

Umeak jasotzeko arauak, zirkular honetan agertzen diren eskolako irteerei buruzkoak izango dira. Garrantzi handia ematen zaio arauok betetzeari.

7.- Ohikoa ez den pertsona bat umea jasotzera joango balitz, aldez aurretik ohar baten bidez, bai eskolako zuzendaritzan, bai autobuseko zaintzaileei jakinarazi beharko zaie.

8.- Umea jasotzeko ardura duen pertsona geltokian ez balego, pertsona hori topatzen saiatu ondoren agertuko ez balitz, Udaltzainei eta Gizarte Ongizateko Zerbitzuei abisua emango litzaieke.



IKASTETXEKO OINARRIZKO ARAUTEGIA

Eskolako arauak guztiok errespetatu eta errespetaraztekoak dira. Norbaitek ahaztu edota betetzen ez dituenean, guztioi dagokigu era onean gogoraraztea.

ARAU OROKORRAK

1. Zirkular honetan azaldutako ordutegiaren arabera, umeak sartu ondoren ateak itxi egingo dira.
2. Bi urteko umeak dira 9:15etan edo 10:00etan sartzeko baimena izango dutenak.(HH)
3. Ikastetxera berandu heltzen denean, **1 ATETIK sartuko da (1.ziklokoen patioetik),** ate honek atezain automatikoa daukalako. **Eskolako pertsona bat irtengo da ikaslearen bila eta dagokion ikasgelara lagunduko dio.** Beraz, **GURASOEK EDO LAGUNTZAILEEK EZIN DUTE IKASTETXEAN SARTU.**
4. Eskolako ordutegi barruan ikasleak klasetik irteteko tutoreari oharra bidali, eta **umearen bila etorri beharko duzue zuzendaritzara,** eskolako pertsona batek lagunduko du ikaslea esandako atera. **HONELA EZ BADA, EZ DUGU UMEA BERE KABUZ ETXERATZEN UTZIKO.**
5. Eskola honetako Lehen Hezkuntzan anai-arrebak dituzten Haur Hezkuntzako umeek soilik 9:10ean sartu eta 16:20an atera ahalko dute.
6. 4. mailako ikasleak etxera bakarrik itzultzeko baimena eskolako zuzendaritzan bideratu behar da.
7. Medikua enera joaten diren ikasleak edozein ordutan eskolara sartu ahal izango dira, zuzendaritzatik pasatu eta behar den medikuaren egiaztatzea aurkeztuz.
8. Zuen seme-alaben ez etortzeak tutoreari egiaztatu beharko dizkiozue idazki baten bidez. **IKASLEA GAIXORIK EGONEZ GERO,** gurasoen edota medikuaren egiaztatzea bidali beharko da, umea eskolara bueltatzen denean. **EZ DA TELEFONOZ DEITU BEHAR.** Egiaztatzean umeen izen-abizenak eta kurtsoa azaldu behar da.
9. Eskolan, ikasleen zaintza eta babesa eskolako jarduerak amaitzean bukatu egiten dira.
10. Eskolara eguneroko etortzea kontrolatu egingo da.



11. Ordutegiei eta arduradunei buruzko arauak zorrozki bete behar dira, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko ikasleei dagozkienean bereziki. Arauok ez betetzeak Udalerriko Gizarte Zerbitzuei eta Hezkuntza Sailari komunikatzea ekarriko du.
12. Dagozkien irakasleek hartu arte, umeen zaintza gurasoen eta tutoreen ardura dela gogorarazten da.
Gogoratu ere, sartzeko ordua izan baino 5 minutu lehenagora arte ezin dela eskolan sartu.
13. Irteeratan, ordukotasuna oso garrantzitsutzat jotzen dugu. Goizetan 13:00 eta arratsaldetan 16:30ak baino minutu batzuk lehenago heltzea gomendatzen dizuegu.
14. **GATAZKAK EZ IZATEKO** ilarak egiten den tokia errespetatu behar duzue gurasoek. Zerbait gertatzekotan irakasleei, jantokiko zaintzaileei/ardunadunari edo zuzendaritza taldeari zuzendu gertatutakoa azaltzeko.
15. Ikasleen segurtasuna dela eta, umearen bila ohiko pertsona ez datorrenean, aurretik irakasleari esan ikastetxeak eskainitako ohar baten bidez.
16. Haur Hezkuntzako umeei txartela egunero ekarri behar dute. (HH)
17. Eskolako ikasle guztiek **kanpoko arropa izenaz markatuta ekarri behar dute**, galdu izatekotan norena den errez jakin ahal izateko.
18. Haur Hezkuntzako umeei arropa eroso ekartzea beharrezkoa dute. Prakak, kremailera, tirante, gerriko eta botoi gabeak izan behar dituzte. Amantala, berokia, txamarra... eskegitzeko zinta jarri eta umearen izena begi bistan ipintzea derrigorrezkoa da. Haur Hezkuntzan umeei amantal berdea erabiltzen dute.
19. Ez dira urtebeteze- gonbidapenarik banatuko.
20. **JARDUERA OSAGARRIAK:** Programatutako irteeretara ez joatea ondo egiaztatu beharko da, gurasoek umea eskolara etorri behar delako jakinaren gainean izanda.
21. Ikastetxe honetan baditugu erlijioa edo baloreak ikasgaiak aukeratzeko. Ikasgaiak aldatu nahi izanez gero apirilean zehar egin daiteke idazki baten bidez eta zuzendaritzara eramanez.



ELKARBIZITZA ETA DISZIPLINA

1. Erabilera txarra dela eta, geletan edo materialetan sortutako apurketak edo akatsak egileak berak ordaindu beharko ditu.
2. Elkarbizitza arauak bete ezean, behar diren neurriak hartuko dira (kanpoko jardueretara ez joatea, irteerak, koloniak...). Falta larriak edo behin eta berriro eginak badira, zuzendaritzak disziplina espedientea ireki lezake. (Eskubide eta betebeharrak Dekerretua)
3. Eskolara edota irteeretara telefonoak, argazki makinak... arriskutsua edota egokia ez den edozein jolas ekartzea debekatuta dago. **Ekartzekotan irakasleek hartuko dituzte eta ez zaizkie umeei ekainera arte bueltatuko.**
Apurtzen edo galtzen badira, eskolak ez du ardurarik hartuko.

Arauok eskola eremu guztietan aplikatuko dira (klaseak, irteerak, jantokia, autobusa...).

OSASUNA ETA ONGIZATEA

1. Umeen higiegi edo garbiketa kontuan edukiko da. Ikasleak osasun eta higiegi egokiaz etorri behar dira eskolara. Horrela ez bada, beharrezko neurriak hartuko dira.
2. Ikasle batek zorriak edota bartzak dituenetan dena kenduta egon arte tratamendu egokia egite behar duzue, bizkarroia oso kutsakorra delako. Arazoa konpontzen ez bada Osakidetza jakinaraziko diogu protokolo bat ezartzeko.
3. Eskola-etekin ona lortzearentzat, umeei etxean gosalduta behar dute. **ERREKREO ORDUAN EZIN DA ESKOLARA ETORRI UMEEI GOZOKIAK EDOTA OGITARTEKOAK EKARTZERA.** Hala ere, hamaiketarako elikagai osasuntsuak ekartzea: fruta, ogitartekoa... eta beste hauek aldiz, zukuak, goxokiak eta opil industrialak ekiditea. Haur Hezkuntzan atsedenaldia atera baino lehen sagarra, ogia edo gailetak jaten dituzte.
4. Urtebetetzeak ospatzeko ezin da gozokirik ekarri; bere ordez askotariko gailetak edota banaketa errazteko gailera ontziratutako ekarri ahalko dira, alergiadun kasuak kontuan izanik.



5. Sendagaiak medikuak aginduta, hartzeko jarraibidea emanda eta dagokion gurasoen baimenaz emango dira bakarrik.

PATIOAK

- 1.Eskolan eta patioetan erretzea debekatuta dagoela gogoratzen dizuegu.
- 2.Eskolako patioetara txakurrik ez ekarri.

JANTOKIA

FAMILIA GUZTIEI

- Ikasturte honetatik aurrera, **Auzolagun** izango da jantokiko zerbitzua bermatuko duen hornitzailea.
- Janariaz gozatuz, elikagai guztiak jaten ikastearekin batera, umeen arteko elkarbizitza hobetzea da jantokiko helburu nagusia. Hau lortu ahal dezagun, familiaren laguntzari ezinbesteko deritzogu.
- Jantokiko langile guztiei nahiz adiskide guztiei begirunez aurrejartzen, ohitura egokiak sortu behar dira, gaitasun positiboen lorpena erraztuz.
- Pedagogikoki jantokian eta bere jolas orduetan finkatutako helburu eta arau orokorrak eta eskolakoak berdinak izango dira.
- Ohituren lorpena bultzatuko da.

ARAUAK

Jantokiaren erabilpena boluntarioa denez, etortzen diren guztiek bere arautegia bete behar dute.

- 1.- Umeek denetik jan behar dute, nahiz eta beren gustukoa ez izan, menuak beren adinarentzako aproposak eta profesionalak eginak baitira.
- 2.- Gaixotasuna izanez gero eta medikuak agintzen badu, menu bereziak prestatuko dira. DIETA BEREZIA behar izatekotan gaixotasun iragankorra dela eta (gorakoak, gastroenteritisa...), tutoreari ohartxo bat bidal iezaiozue, beharrezkoa bada, sukaldean abisua eman ahal izateko.
- 3.- Jantoki orduan umeak eskolatik ezin dira irten. Ordutegi honetan umeek eskolatik irten behar badute, jantokiko arduradunari, ohar baten bidez adierazi behar diote. Oharrean



argi eta garbi agertu behar dira honako datu hauek: umearen izen-abizenak, kurtsoa, tutorea eta irteteko ordua. **Eskolara etorri behar dute bila. Lehen aipatutakoa bete ezean umea ezin izango da eskolatik atera.**

4.- Asteazkenetan jantokian geratzen diren ikasleek ezin izango dute eskolatik irten 14:45ak baino lehen.

5.- Lehen Hezkuntzako umeek ordu erdi izango dute bazkaltzeko (gutxi gorabehera eta salbuespenak salbuespen) eta premia duten umei laguntza emango zaien.

6.- Jatorduan ezin da mahaitik altxatu, zerbait nahi izanez gero edo errepikatu nahi badute, eskua altxatu behar da eta mahaiko arduradunari eskatuko zaio **errespetu osoz**.

7.- Bazkalkideak eta zaintzaileak errespetatzeko, tonu egokia erabiliko dugu, ahoa beteta ez dugu hitz egingo eta guri deitzean ondo eta berehala erantzungo dugu. Mahaiak, aulkiak, lurra... ez zikintzen ahaleginduko gara.

8.- Noizbehinka jantokia erabili nahi dutenek aurretik eta idatziz tutoreari esan beharko diote. **Bazkaltzen geratu diren egunetako prezioa ordaintzeko Idazkaritzatik pasatu beharko dute eta jantokiko arduradunari edo Haur Hezkuntzako koordinatzaileari eman.**

9.- Jantokiko tresneria ganoraz erabili behar da eta ezin da beraiekin jolastu ezta janariarekin ere. Amaitzen denean tresneria bere tokian utzi behar da eta aulkiak mahai azpian jarriko dira.

10.- Jantokian irteerak eta sarrerak astiro, lasai eta lerrokatuta egingo dira, zaintzaileei momentu guztietan kasu eginez.

11.- Jantoki barruan eta bidean ez da oihukatuko.

12.- Bazkaldu eta gero patiora joango dira eta ez dira sartuko ez jantokian ezta geletan ere.

13.- Eskola-jantokien funtzionamendua arautzen duen 2000ko martxoaren 22ko aginduak esaten duenez: Jantokiak hezkuntza-izaera duenez, ikasleen parte hartzea ere sustatuko da, eta honela egingo da: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lehen urtetik gorakoei mahaia ipintzen eta jasotzen erakutsiko zaie.

14.- Errespetu falta grabea suertatzen bada eta AIA-k esaten duenaren arabera, honako pausu hauek jarraituko ditugu:

a) Barkamena eskatu beharko da eta aldi berean familiari informazioa emango zaio.



- b) Berriz gertatzekotan, zuzendaritzak familia konbokatuko du eta Jantokiko Komizioak behar diren neurriak hartzeko ahalmen duela jakinaraziko dio (zigorraren ordezkintza batzuk bete beharra, jantokitik kanpo 1 edo bitan gelditzea...). Eskola Kontseiluak espediente bat irekitzea erabaki lezake.

15.- Hala ere, ikastetxean Bizikidetzaren Taldea eta Bat Taldea ditugu kasuei jarraipena emateko.

Jantokiko zaintzaileekin harremanetan jartzeko telefonoa:

944287908 (Haur Hezkuntza)

944287907 (Lehen Hezkuntza)

JANTOKI ORDAINKETA

Hona hemen 2023/2024 ikasturtean, **GAURKOZ**, jantokiaren zerbitzuagatik aplikatu beharreko jantokideen kuota:

a) Ikaslea, ohiko jantokidea: 4,60 € b) Ikaslea, ohiko ez den jantokidea: 5,20 €

Kurtso honetan jantoki diru kopuru osoa **9 kuota** berdinetan kobratuko da eta ikasleak jantokia erreserbatu dituen egunen kopuruaren arabera izango da. Kuota horiek hilabetearen 10. egunean baino lehen kobratuko dira, urrian hasten eta ekainean bukatzen.

Hemen agertzen den taulan ikasleek gehien hartu dituzten aukerak agertzen dira. Zalantzaren bat izatekotan eskolara dei dezakezue.

IRAILA	IKASTURTEA	EKAINA	PREZIOA
5 EGUN	5 EGUN	5 EGUN	89,44 €
4 EGUN	4 EGUN	4 EGUN	71,56 €
	4 EGUN		60,31 €
	4 EGUN	4 EGUN	66,44 €
	5 EGUN	5 EGUN	82,8 €
	5 EGUN		75,13 €
5 EGUN	5 EGUN		81,78 €
4 EGUN	4 EGUN		65,42 €

Noizbehinka geratu nahi denean 5,20€ ordaindu beharko dizkiozue jantokiko



ardunadunari Lehen Hezkuntzan edo koordinatzaileari haur Hezkuntzan.

EHAA-2005eko irailaren 1ean argitaratu zen Agindua, 2005eko uztailaren 26koa, 2.kapituluko 6.artikuluak esaten duenaren arabera, " Jantoki-laguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleek, kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten herri ikastetxeetako ikasleak izanez gero, ez dute haien kontu korranteetan beka kobratuko; herri ikastetxeak berak jasoko du ikasleari dagokion laguntza ikastetxearen jantoki-kontuan, eta horrelakorik ezean, gastu-kontuan."

• **DESKONTUAK:**

Ikasle bekadunek: Ez dute **inolako** deskonturik izango.

Ikasle ez bekadunek:

Jantokiko kuotaren zati bat itzuliko da honako kasu hauetan:

- a) Ikasle-kolektibo bat jantokira joaten ez denean, aurrez onartutako eta programatutako jarduera osagarriak egin eta piknik zerbitzurik behar ez badute, beti ere, aurrez enpresa esleipendunari jakinarazten bazaio. Ahal dela, jarduera horiek ikasturte hasieran planifikatu eta jakinaraziko zaizkio catering-enpresari. Hori hala egitea posible izango ez balitz, planifikatzen diren unean jakinaraziko dira eta, edonola ere, gutxienez 48 ordu lehenago.
- b) Jankidea ez bada astebetetz edo aste gehiagoz jarraian jantokira joan behar, beti ere, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada. Bi kasu horietan itzuli beharreko zenbatekoa kasu bakoitzean ikasleak ordaindu beharreko kuotaren % 50 izango da.
- c) Eskola jantokiak funtzionatzen ez duenetan, itzulketak, hala badagokio, une horretan indarrean dauden Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzak emandako jarraibideen arabera egingo dira.

Ikasle jankideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jantokiko bekarik jasotzen badu, ezin da inola ere ezer itzuli.

Ikasleren bat **jantokitik kanporatzekotan**, familiak ez du itzulketarik jasoko.

• **JANTOKIKO BAJAK**

Baja hartu nahi deneko eguna baino 48 ordu lehenago abisua eman eta dagokion finikitoa



sinatu behar da.

TESTULIBURUEN ETA CURRICULUM-MATERIALEN KUDEAKETA SOLIDARIOA EGITEKO PROGRAMA (LEHEN HEZKUNTZA)

Orain dela urte batzuk testuliburu eta Curriculum-materialen kudeaketa solidarioa egiteko programa martxan jarri zen Lehen Hezkuntzan.

Programa honetan berrerabil daitezken ikasmaterialak eta testuliburuak Hezkuntza Administrazioarenak dira eta ikasturte amaitzen denean, eskolan bertan geratuko dira geroko ikasleek erabil ditzaten (lehenengo ziklokoenak izan ezik).

Dakizenez, "**Gestión Solidaria de Libros de Texto**" Programa martxan jarri da (Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara) eta liburuak eskolan bertan banatuko dira.

Liburuak lau edo bost kurtsotan zehar berrerabiliko dira; horregatik, arretaz zaintzea eskatzen dizuegu, hurrengo jarraibideak kontuan hartuz:

- **Liburuak, itsaskorra ez den plastikoarekin larrutu beharko dituzue eta ahalik eta lasterren eskolara ekarri.**
- **Liburuetan ezin da izenik idatzi, ez barrualdean ez kanpoaldean. Zenbaki bat jartzeko, gelan bertan ipiniko zaie etiketa bat.**
- **Liburuak kontsultarako besterik ez dira erabiliko. Ezin da ezer idatzi, azpimarratu... Horretarako koadernoak edo lan-koadernoak daude.**
- **Kurtso amaieran, liburuak aztertze osatuko den komisiok, liburu bat txarto erabiltzeagatik ez dela egokia berriro erabiltzeko erabakitzen badu, familiak liburu horren prezioa ordaindu beharko du.**
- **Baldintza onetan ez dauden edota galdutako liburuak berripintzeari justifikaziorik gabe uko egiteak, ikasleak hurrengo ikasturtean "Gestión Solidaria de Libros de Texto" Programa honetan parterik ez hartzea ekar lezake.**
- **Urrian bankutik edo kutxatik ikasle bakoitzak ordaindu beharreko kantitatea pasatuko da.**
- **Ikastetxez aldatzen diren ikasleek eskolan utzi beharko dituzte testuliburuak eta ikasmaterialak.**

OHARRA.- "Gestión Solidaria de Libros de Texto" Programa honetan parte hartzen ari diren ikasleek liburuak bere tutoreari eman behar dizkiote ekainaren 15a baino lehenago.

